

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1732

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 30ekoa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan prestatzeko 2023-2024rako beken deialdia egiten duena.

Martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuak unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan prestatzeko beken programa sortu eta arautzen ditu.

Dekretu horren 5.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan unibertsitate-tituludunak prestatzeko 2023-2024ko beken deialdia egitea dagokio. Beka horiek Lehendakaritzaren 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude, zeina Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2023ko urtarrilaaren 18ko Ebazpenaren bidez onartu baitzen eta honako helbide honetan argitaratuta baitago: <https://www.euskadi.eus/proiektua/lehendakaritzaren-2023eko-diru-laguntzen-plan-estrategikoa/web01-s2lehen/eu/>

Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan unibertsitate-tituludunak prestatzea bultzatzeko bi beka ematea 2023-2024rako.

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

1.– Deialdikobeka-programaren guztizko kreditua 36.417,86 eurokoa da; horietatik 11.005,76 euro 2023ko ordainketa-kredituei dagozkie, eta 25.412,10 euro 2024ko konpromiso-kredituari.

2.– Beken diru-zuzkidura 17.500 euro gordinetara izango da bakoitzarentzat. Bekaren zenbatekoari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) atxikipenak eta konturako ordainketak kenduko zaizkio, zergaren araudiaren arabera legozkiokeenak.

3. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

1.– 2023ko martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak bitarteko elektronikoak bakarrik erabili beharko dituzte prozedura honetako izapide guztiak eskatzeko, kontsultatzeko eta egiteko.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta aurkeztu beharreko agiriak telematikoki izapidetzeko zehaztapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan daude eskuragarri. <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1232101>

3.– Eskaera egiteko, behar bezala betetako eskabide normalizatu bat erabiliko da. Eska bide hori egoitza elektronikoan dago eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1232101>

Eskabideak identifikatzeko eta sinatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoak erabili behar dira, helbide honetan eskuragarri daudenak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

4.– Eskatzaileak elektronikoki izapidetu ahal izango du ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkaritza Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen Ordezkarien Erregistroan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

5.– Eskabidearen ondorengo izapideak bide elektronikoz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen «Nire karpeta»ren bidez, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, onuradunak Eusko Jaurlaritzaren datu-basean agertu beharko du.

Alta emateko edo hirugarrenen datuak aldatzeko, interesdunak Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenen erregistro elektronikora jo beharko du, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/altaterceros>

Ebazpenen jakinarazpen elektronikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa egingo dira, «Nire karpeta»n (<https://www.euskadi.eus/micarpeta>).

6.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbaturik.

4. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

2023ko martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuaren 10. artikuluan aipatzen den Hautaketa Batzordea, merezimenduak baloratuko dituen, honako pertsona hauek osatuko dute:

– Asier Aranbarri Urzelai, Berrikuntza Sozialaren zuzendaria, presidente izango da. Bakante, absentsia, gaixotasun edo beste kausa legal baten kasuan, Miren Saratxaga de Isla Gazteriako zuzendariak beteko du tokia.

– Mikel Meneses Arenas, Gizarte Berrikuntzako Zuzendaritzako teknikaria, bokala izango da. Bakante, absentsia, gaixotasun edo beste kausa legal baten kasuan, Josu Gerediaga Egurrola Gazteria Zuzendaritzako arduradunak beteko du tokia.

– Ianire Abad Peña Gizarte Berrikuntzako Zuzendaritzako teknikariak batzordeko idazkari-lanak egingo ditu. Bakante, absentsia, gaixotasun edo beste kausa legal baten kasuan, Agurtzane Iriondo Goti Gazteria Zuzendaritzako teknikariak beteko du tokia.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan aipatutako dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren menpe egongo dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; eta 34/2023 Dekretua, martxoaren 21ekoa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan unibertsitate-tituladunak prestatzeko bekak arautzen dituen.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko

auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Denek jakin dezaten, www.euskadi.eus webgunean ere argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 30a.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusia,
JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ ERDOCIA.

2023ko apirilaren 13a, osteguna

ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA

Izen-abizenak:

NAN/pasaportea:

.....

Helbidea:

E-maila:

Goi-mailako edo graduako unibertsitate-titulua:

.....

Lizentziatura edo graduan lortutako batez besteko nota (agiri bidez egiaztatu beharko da):

Hizkuntzak:

☐ Euskara: (*)Egiaztatutako maila: ☐ B2 ☐ C1 ☐ C2

(*) 47/2012 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa betetzen dutenak salbuetsita egongo dira Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarako hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriak aurkeztetik (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena).

☐ Ingelesa:Egiaztatutako maila: ☐ B1 ☐ B2 ☐ C1 ☐ C2☐ Beste hizkuntzak:Egiaztatutako maila: ☐ B1 ☐ B2 ☐ C1 ☐ C2

Genero-berdintasunaren arloko eta/edo indarkeria matxistaren aurkako prebentzioaren arloko prestakuntza (dokumentu bidez egiaztatu beharko da):

.....

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

NAN edo pasaportea.

Errola-ziurtagiria, Euskal Autonomia Erkidegoan 2023ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik bizi dela egiaztatzen duena.

Goi-mailako edo graduako unibertsitate-titulua eta, hala badagokio, dagokion homologazioa.

Egindako ikasketen ziurtagiriak, ofizialak eta balio akademikokoak.

Hizkuntza-ziurtagiriak, ofizialak eta balio akademikokoak.

Administrazioak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak kontsultatu edo biltzeko, markatu dagokion aukera:

☐ BAI baimena ematen dut instrukzio-organoak kontsultatu edo bildu ditzan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak.

☐ EZ dut baimena ematen instrukzio-organoak kontsultatu edo bildu ditzan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak

Adierazten du betetzen dituela 34/2023 Dekretuaren 2. artikuluko eskakizun guztiak (34/2023 Dekretua, martxoaren 21ekoa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan unibertsitate-tituludunak prestatzeko bekak arautzen dituen).

Adierazten du eskaeran eta eskabideari erantsitako gainerako dokumentazioan aipatzen den informazioa egiazkoa dela eta errealitateari erantzuten diola.

Adierazten du aurretik ez dela inoiz beka horien onuraduna izan, edo ez duela inoiz jaso unibertsitate-titulua duten pertsonentzat Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako beste prestakuntza-bekarik.

Adierazten du ez duela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik (1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena –50.5 artikulua–).

Lekua eta data

Sinadura

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Jakinarazten da datu pertsonalak «Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloko prestakuntza-bekak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa –Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra– eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa).

Arduraduna:

Berrikuntza Sozialaren Idazkaritza, Lehendakaritza.

Nafarroa kalea 2, 01007, Vitoria-Gasteiz.

Tfno: 945 016625.

Datuak babesteko ordezkaria:

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tfno: 945 018511.

e-maila: dpd-dbo@euskadi.eus

Helburua: Informazio pertsonala kudeatzea, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak egindako beka-deialdietan parte hartu dutenei buruzkoa.

Datuak gordetzeko epea: datuak biltzeko helburua betetzeko eta egon daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denbora. Artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Legitimazioa:

– Datuen Tratamendua beharrezkoa da Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean burututako misio bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Hartzaileak.

Datu pertsonalak eman ahal izango zaizkie interes legitimoa duenari eta Gizarte Segurantzako eta Ogasun Publikoko eta Zerga Administrazioako organismoek.

Eskubideak: eskubidea duzu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko ere.

Informazio gehigarria. Gure webgunean kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: <http://www.euskadi.eus/servicios/10842>

.....(e)n, 20....(e)ko aren (e)(a)n.

Eskatzailearen edo ordezkariaren sinadura